**Arabako hirigintza planeamenduaren administrazio erregistroko erabiltzailearen eskuliburua.**

Arabako hirigintza planeamenduari buruzko web aplikazioak bi orri ditu: erregistroen kontsultarako orri nagusia, eta erregistroaren xehetasun orria.

**Erregistroen kontsultarako orria**

Orri honetan, iragazketa eta bilaketa eremuez baliatuta, erabiltzaileak bere intereseko erregistroak aurki ditzake. Definituta dauden bilaketa eremuak honako hauek dira: erregistroaren jabe den udalerria, izena, espediente zenbakia, eta planeamenduko tresna.




Erabiltzaileak, komeni zaizkion bilaketa iragazkiak hautatu ondoren, “Bilatu” botoia sakatu behar du. Gero, sareta bat bistaratuko da; bertan agertuko dira aurretik zehaztutako irizpideekin bat datozen erregistroak.



Erabiltzaileak kontsultatu nahi duen erregistroa aurkitu duenean, datu saretan ageri den “Ikusi xehetasunak” botoia sakatuko du. Jarraian, hautatutako erregistroaren datu guztiak biltzen dituen beste orri bat bistaratuko da, hots, erregistroaren xehetasun orria.

**Erregistroaren xehetasun orria**

Aplikazioko orri nagusiaren (erregistroen kontsultarako orria) datu saretako “Ikusi xehetasunak” botoia sakatzearekin batera heltzen da orri honetara. Bertan, erregistro bati dagozkion datu guztiak bistaratzen dira. Hona hemen datu horiek: idazpen zenbakia, espediente zenbakia, izena, izapidetze egoera, bertan behera uztearen arrazoia (izapidetzea bertan behera utzi bada), argitaratze data, antolamendu eremua, planeamendu mota, planeamenduko tresna, sustatzaile mota, prozedura, onarpen organoa, onarpen mota, eta udalerriak.



Halaber, orri honetatik bertatik, erabiltzailea hautatutako erregistroarekin lotutako dokumentuetara sar daiteke.

